

EUSKADIKO GARAGARDOAREN SEKTOREAREN 2023KO TXOSTENA



EUSKAL
GARAGARDO
ELKARTEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

2023-2023 urteak ahalegin handi eta lan gogorraren garaiak izan dira Euskadiko garagardogintzaren sektorean; berau surpertzeko, inflazio egoera berrira egokitzeko eta pandemiaren aurreko ekoizpen eta salmenta mailetara itzultzeko. Erronkei aurre egiteko ahalegin eta irudimen handiarekin, eta batez ere kalitate handiko garagardoarekin, gure garagardotegiak gai izan dira Euskadin ekoiztutako 2 milioi litroko langa gainditzeko bere historian lehen aldiz.

EGEk (Euskal Garagardo Elkartea – Basque Beer), Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailaren laguntzarekin, “2023ko Euskadiko Garagardoaren Sektorearen Txostena” txostenaren bosgarren ekitaldia sustatu du. Txosten honek sektorearen bilakaera aurkezten du, garagardogileei zuzendutako inkesta sakon baten bidez bildutako datuetan oinarrituta. Bost ekitaldi hauetan zehar, datuek aukera eman dute ekoizpena, negozio-bolumena eta enpleguaren sorrera bezalako alderdiak ebaluatzeko. Covid-19aren osasun krisiak eragin nabarmena izan zuen gure sektorean, zeinak ordura arte etengabeko hazkundeari eusten zion. Hala ere, 2020 eta 2021 urteetako zailtasunak gainditu ondoren, pandemiaren aurreko datuak gainditzeak sektorearen etorkizuna baikortasunez begiratzeraz garamatza.

Euskal garagardogileen iraunkortasunak eta lanak bere fruituak eman ditu

2023ko txostenak agerian uzten du euskal garagardogileen iraunkortasunak eta lanak bere fruituak eman dituela, 2023an ekoiztutako litroetan %16ko hazkundea edukiz

2021eko txostenean jasotako azken datuekin alderatuz. Bi urte hauetan bost lantegi itxi behar izanak mintzen bagaitu ere, Euskadiko sektorea sendotu egin da 18 lantegi aktiborekin eta 3 garagardogintza-proiektu berriri ongietorria emanez.

Txosten honetan azpimarratu nahi dugu Euskadin egindako garagardo-fabriken eta garagardo-litroen %95 BASQUE BEER marka kolektiboari atxikita daudela. Marka horrek bakarrik bermatzen du garagardoa %100ean Euskadin ekoiztu izana.

Euskadin egindako garagardo-fabriken eta garagardo litroen %95a BASQUE BEER dira


Ez dugu aipatu gabe utzi nahi, erakundeek erantzun azkar eta eraginkorrak izan duen garrantzia sektorea bizirauteko eta sendotzeko garaian. Erantzun hau gabe ez lirateke egungo datu itxaropentsuak posible izango. Izan ere, garagardoaren gure sektorea Ukrainako inbasioaren ondorioz oso kaltetuak izan diren elikadura-kateko sektoreen artean sartu baita, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2023an onartutako eta bereziki Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordetzak sustatutako sektorerako aparteko laguntza bat eskuratu ahal izan du.

Harro gaude txosten tekniko hau aurkezteaz. Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko garagardogileei beren datuak ematen lagundu dutelako (partaidetzaren %94,73), hainbeste maite dugun sektorea gero eta indartsuagoa eta hobea izango delakoan.

Jabier Ortega

Euskal Garagardo Elkartea-Basque Beereko Koordinatzaile Orokorra

TXOSTENEAN PARTE HARTZAILEAK



1. BAGA BIGA
Donostia-Gipuzkoa



2. BAIAS
Oiardo-Araba



3. BASABE
Legerreta-Gipuzkoa



4. BASQUELAND
Hernani-Gipuzkoa



5. BASQUERY
Bilbao-Bizkaia



6. BIDASSOA
Irún-Gipuzkoa



7. BOGA
Mungia-Bizkaia



8. BREWERY LAND
Zumaia-Gipuzkoa



9. BYRA
Iruña Oka-Araba



10. DRUNKEN BROS
Zamudio-Bizkaia



11. ETXEANDIA
Urduliz-Bizkaia



12. GROSS
Donostia-Gipuzkoa



13. LAUGAR
Gordexola-Bizkaia



14. MALA GISSONA
Oiartzun-Gipuzkoa



15. META
Astigarraga-Gipuzkoa



16. PAGOA
Oiartzun-Gipuzkoa



17. TITO BLAS
Gorliz-Bizkaia



18. ZAMPANO
Aizarnazabal-Gipuzkoa

EUSKADIKO GARAGARDO EKOIZPENAREN DATUAK

EUSKADIN URTEAN EKOIZTUTAKO GARAGARDO LITROEN HISTORIKOA(2013-2023)

Euskadin garagardogintzaren sektorea sendotu egin da pandemiaren krisiaren eta Ukrainaren egoerak eragindako kostuen igoeraren ondoren, 2023an Euskadin ekoiztutako garagardo-litroen kopurua %16 igo delako 2022ko azken datuarekin alderatuta, eta historian lehen aldiz, ekoiztutako 2 milioi litroko muga gainditu delako.

EUSKADIKO LANTEGI AKTIBOEN HISTORIKOA

Merkatuaren egokitzapenaren ondorioz, 2022-2023 denboraldian, lau proiektuk itxi egin behar izan dute, hiru lantegi berri sortu dira eta xurgatze baten ondorioz bi garagardogile elkartu egin dira.

LURRALDE HISTORIKOETAKO EKOIZPENAREN %-AREN MAPA

Gipuzkoa da, alde handiz, gehien ekoizten den lurraldea ekoizpen osoaren ia %75a ekoiztuz. Jarraian, Bizkaia izango genuke %20a ekoiztuz eta, azkenik, Araba %5arekin.




2013	80.207
2014	160.842
2015	419.156
2016	701.418
2017	958.817
2018	1.252.513
2019	1.493.148
2020	1.398.148
2021	1.778.675
2022	2.040.342
2023	2.079.024



EKOIZPENAREN BATAZ BESTEKOAREN BILAKAERA LANTEGIKO

Urteko litroko datuetan adierazitako batez besteko ekoizpenaren datuari dagokionez, ikus dezakegu 2023an hazi egiten dela, lehen aldiz 100.000 litroko batez bestekoa gaindituz.



GARAGARDOAREN TAMAINAREN ARABERAKO EKOIZPENA

Garagardoaren ekoizpena garagardogileen tamainaren arabera aztertzen badugu, aurreko urteetan bezala, gure lantegiak 3 taldetan banatuko ditugu, 2023ko urteko ekoizpenaren bolumenaren arabera: garagardogile txikiak (urtean 100.000 litro baino gehiago), Micro garagardogileak (urtean 24.000 eta 100.000 litro artean) eta Nano garagardogileak (urtean 24.000 litro baino gutxiago). 2023an Euskadin egindako litroen %77a garagardogileen %26k, Garagardogile Txikien taldean sartuta daudenek, egiten dutela antzeman dezakegu. Datu azpimarragarri gisa, aipa dezakegu Micro garagardogileak, aurreko txostenean


garagardogileen %45a zirenak eta litroen %21a egiten zutenak, garagardogileen %26a izatera eta litroen %16a egitera igaro dira. Aitzitik, Nano garagardogileak 2021ean Euskadiko garagardogileen %30 izatetik, egun, %47 izatera igaro dira, eta ekoizpen osoaren %4 egitetik %7 egitera igaro dira. Laburbilduz, esan dezakegu euskal garagardogileen erdiak nanoak direla eta %25 mikro eta %25 garagardogile txikiak direla; bestalde, nano eta mikroen artean, ekoiztutako litro guztien %23a egiten dute eta garagardogile txikiek guztizko ekoizpenaren %77a.



TOKIKO LEHENGAIEN ERABILERA

Euskal garagardogileen ia %75ek tokiko lehengairen bat erabiltzen du; garagardogileen %42,10ek tokiko malta erabiltzen duela adierazten du, eta %57,90ek tokiko lupulua erabiltzen duela.

Tokiko lehengairik erabiltzen ez duten garagardogileen artean, hauek dira arrazoi nagusiak: %80k dio ez duela barietaterik aurkitzen eskainitako gaman, eta %20k adierazi dute ez dutela tokiko lehengairik erabiltzen, eskainitako produktuaren kalitate faltagatik.



GARAGARDOAREN SALMENTA EUSKADIN

MERKATURATZEKO ONTZI MOTEN % ETA ONTZIKO LITROAK GUZTIRA

Euskadin, ekoiztako garagardoaren ia erdia (%48,05) upeletan merkaturatzen da. Botilak %25a dira eta latak %24,5a. Azkenik, tanketik zuzenean zerbitzatutako garagardoa, guztizkoaren %2,42.

KANALEKO SALMENTA % ETA KANALEKO LITROAK GUZTIRA ETA ERABILTZEN DUTEN GARAGARDOGILEEN %


Hurrengo grafikoan gure garagardoaren salmenta- eta banaketa-kanal nagusiak zein diren ikus ditzakegu. Azpimarratzekoa da ekoiztutako litro guztien %45 inguru Ostalaritzan (HORECA) saltzen direla, eta esportazioa dela bigarren sektorea litroen bolumenaren arabera (%27,29). Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea euskal garagardogileen erdiak baino gehiagok (%52,63) beste herrialde batzuetara esportatzen duela garagardoa.



Garrantziaren arabera hurrengo banaketa-kanalak honako hauek dira: garagardogileak azken kontsumitzaileari egindako zuzeneko salmentak (%17,46), Banaketa Handia (Retail-Supermerkatuak, etab.) %8,21, eta nomadentzako elaborazioa (lantegi propioak gabeko beste garagardogile batzuk) %2,42.

Espainiako Garagardogileek 2023ko Espainiako garagardoaren sektorearen urteko txosten sozioekonomikoan argitaratutako datuak erreferentziatzen hartuz gero, Espainiako kontsumo-datuak adierazten dute garagardoaren kontsumoa ostalaritzan (%61) eta etxean (%39) egiten dela, etxean nagusiki retail kanalaren bidez merkaturatutakoa kontsumitzen delarik. Ikusten da kanal horretako gure salmentazifrak (%8,21) kontsumitutako garagardo guztia baino gutxiago kontsumoak adierazten duenaren azpitik daudela argi eta garbi.

BANAKETA-KANAL NAGUSIAK



GUZTIRA 2023AN EKOITZITAKO GARAGARDO EZBERDINAK ETA % GAMA FINKOA/EDIZIO BEREZIAK


Euskadin 2023an 424 garagardo ezberdin ekoitzi dira, eta horietatik 129k garagardoaren gama finkoa osatzen dute; hau da, urte osoan zehar eskuragarri dauden garagardoak, ekoizpen osoaren ia %75a osatzen dutenak; aldiz, 295 garagardo egin dira, "edizio bereziak" izenekoak; hau da, denboran jarraikortasunik ez duten garagardoak, lote bereziak, eta ekoiztutako litroen %25a inguru direnak



MERKATU ETA EKOIZPEN KUOTA

EKOIZPEN KUOTA

Euskadiko garagardoaren kontsumo globala 2023an 151 milioi litroa hurbiltzen da, eta horrek %1,37ko ekoizpen-kuota ematen digu, aurreko txosteneko (2021) ekoizpen-kuota (%1,2) baino pixka bat handiagoa. Datu horrek adierazten digu Euskadin kontsumitutako 100 garagardotik 1,37 bakarrik ekoizten direla hemen, eta Euskaditik kanpo ekarritako 98,63 garagardo kontsumitzen direla.



MERKATUKO KUOTA

Euskadin 2023an egindako garagardo-salmenten guztizkoa 156,46 milioi eurokoa dela kalkulatzen da, horietatik 4,38 milioi euro craft garagardoaren salmentei dagozkie Euskadin; eta horrek %2,8ko merkatu-kuota ematen digu 2023an. Artisan-garagardo litro berberak garagardo industrialarenak baino negozio-bolumen handiagoa sortzen dute, kostu unitario txikiagoarekin.

Euskadik Espainiako estatuko craft garagardogile guztien %6,98 du; hala ere, Espainian ekoiztutako craft garagardo litro guztien %12,23 ekoizten du.



BASQUE BEER MARKA

Basque Beer marka kolektiboa da, euskal garagardogileek erregistratuta dutena eta kontsumitzaileei garagardoa Euskadin benetan eginda dagoela adierazteko erabiltzen dutena. Horrek bermatzen du aberastasuna sortzea baliabide ekonomikoetan (zergen %100 Euskadin ordainduta daude), lanean (sortutako lanpostu guztiak Euskadiko lantokietan dira), gizartean (gure garagardogile gehienek elkarrekin eta tokiko sustraiak dituzten beste erakunde batzuekin lankidetzan jarduten dute) eta ingurumenean (tokiko kontsumoa saihestuz, urtero fabriken kokaleku desberdinetatik Euskadira datozen milioika litro garagardoaren garraioak sortutako karbono-aztarna saihesten dugu, kasu askotan Euskaditik ehunka kilometrora).

**EUSKADIN
BENETAN
EGINDAKO
BAKARRAK**

**BERTAKO
KONTSUMOA**

**LANPOSTUAK
EUSKADIN**



**BASQUE
BEER** **MADE IN
EUSKADI**

info@basquebeer.eus
www.basquebeer.eus

BASQUE BEER GARAGARDOTEGIAK



BASQUE BEER 2023

Gure kasuan 2023an, bai Euskadiko garagardo lantegien %95a, bai Euskadin ekoizitako litro guztien %95a Basque Beer-ek barnebiltzen ditu.



Garagardogileen
eta ekoizitako litroen

%95

BASQUE BEER
markakoak dira

MADE IN • MADE BY • MADE FOR EUSKADI

ENPLEGU DATUAK

SORTUTAKO ZUZENeko ENPLEGUA

Gure garagardogileek sortutako zuzeneko enpleguari dagokionez, nabarmendu behar da euskal garagardogileen %57,89k besteren konturako langileak dituela, hau da, 98 langile daude gure garagardogileen jardunerako kontratatuta; horietatik %80 inguru gizonak dira eta %20 emakumeak.

Langile horiek kokatzen ditugun sailei dagokienez, %47k Merkataritza/Zuzeneko Salmenta Sailean egiten dute lan, %35ek Produksioan eta %18k administrazio-lanak egiten dituzte.

SAILEAK

%35a Produksioan

%18a Administrazio-lanak


%47a Merkataritza eta salmentak



Azkenik, gure garagardogileen CEO/General Manager irudiaru dagokionez, postu horretan dauden pertsonen %95 garagardogileen bazkideak dira. Postu horretan dauden pertsonen 48,37 urte dituzte batez beste, eta %84 gizonak dira eta %16 emakumeak.



MILA ESKER



98

besteren konturako
ZUZENeko LANGILEAK

%80 Gizonak
%20 Emakumeak

CEOen %95 son
garagardotegiko
BAZKIDEAK dira

Batez besteko adina
48,37 URTE

%84 Gizonak
%16 Emakumeak